

MERKATARITZA-INDIZAEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2025eko UZTAILA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,4 igo dira 2025eko uztailean

Aurreko hilaren aldean, salmentek % 0,2 egin dute gora

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,4 hobetu dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren. Aurreko hilaren aldean, hau da, 2025eko ekainaren aldean, % 0,2 egin dute gora prezio konstanteetako salmentek, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Urte artean, salmenten bilakaera positiboa izan da *Elikaduran*, % 0,2ko igoerarekin (2025eko uztaile 2024ko uztailearen aldean), eta baita *Gainerako produktuetan* ere, % 0,6ko igoerarekin.

Aurreko hilarekiko (2025eko uztaile 2025eko ekainaren aldean), salmentak % 0,8 igo dira *Elikagaien* sektorean, eta, aldiz, *Gainerako produktuen* sektorean % 1,1 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,4	0,2	0,8
Araba/Alava	-0,9	-0,3	-0,2
Bizkaia	1,2	0,6	1,5
Gipuzkoa	-0,6	-0,4	-0,1
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	0,2	0,8	0,6
Gainerako produktuak	0,6	-1,1	1,1
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1,4	0,8	1,7

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hilabete arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko irailaren 4a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Bizkaian % 1,2 handitu dira azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak 2025eko uztailan, aurreko urteko garai beraren aldean; baina Araban eta Gipuzkoan salmentek behera egin dute % 0,9 eta % 0,6, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekiko, salmentak % 0,6 hobetu dira Bizkaian; aldiz, Araban % 0,3 txikitu dira eta Gipuzkoan % 0,4.

Urteko metatua azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenten indizeak % 0,8ko hazkundea izan du, eta aldakuntza positiboak izan dira bi sektoreetan. Lurralde historikoei dagokienez, aldiz, Bizkaia % 1,5 hobekuntza izan du, Arabak % 0,2ko beherakada eta Gipuzkoak % 0,1eko beherakada.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan **okupatutako langileen** kopurua % 1,4 handitu da 2024ko uztailaren aldean. Aurreko hilarekiko, ordea, okupatutako langileen indizea % 0,8 txikitu da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urtetik urterako aldaketak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatzen dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serietan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,97ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62